

## **IRABAZI-ITURRIAK**

Atal honetan, gure proiektua aurrera eramateko edukiko ditugun irabazi iturriak aurkeztuko ditugu, gure produktuaren helburuetako bat, proiektu gehienen antzera, dirua irabaztea bait da. Alde batetik, hasierako inbertsiorako behar dugun dirua nola lortuko dugun azalduko dugu. Bestalde, kostufinko eta aldakorrak ordaintzeko erabiliko ditugun diru-sarrerak aztertuko ditugu.

Hasierako inbertsioa egin ahal izateko, BBVA bankuaren mailegu bat erabiliko dugu gure finantziario ia guztia lortzeko. Hau garbiago ikusteko, bakoitzak duen portzentaia kalkulatu dugu. Horrez gain, diru laguntzak erabiliko ditugu; Gipuzkoako Foru Aldundiak enpresa berriei ematen dizkien diru laguntzak.

<b>DIRU-ITURRIA</b>	<b>DIRU KANTITATEA</b>	<b>PORTZEINTAIA (%)</b>
Mailegua (BBVA)	4.500€	%90
Diru laguntzak	500€	%10
<b>Guztira</b>	<b>5.000€</b>	<b>%100</b>

Urtean zehar edukiko ditugun irabazi edo diru sarrerei dagokienez, hau da, produktuaren salmenta hasten denetik aurrera, lehen hilabetearen ostean, gure irabaziak produktuaren salmentatik etorriko dira, eta hauek erabili beharko ditugu gure gastuak ordaintzeko. Aurreikuspen bat egiten saiatu gara, gutxigorabehera nola joango zaigun ikusteko, eta ea negozioak bide ona hartu arte diru nahikoa edukiko dugun jakiteko.



Aurretik esan bezala, Espainia mailan salduko dugu, bai interneten eta bai denda fisikoetan eta gure produktuaren prezioa 8€-koa izango da. Espainia osoan gure merkatu segmentua betetzen duten milaka pertsona daude eta gure produktua salgai egongo den 130 bat denda, internetekoa kontatu gabe. Ondorengo taulan lehen urteko gure aurreikuspena ikus daiteke gutxi gorabehera.

HILABETEA	INTERNETEN	DENDA FISIKOAK	€
1	200	150	350 x 8€ = <b>2.800€</b>
2	350	270	620 x 8€ = <b>4.960€</b>
3	500	350	850 x 8€ = <b>6.800 €</b>
4	800	437	1.237 x 8€ = <b>9.896€</b>
5	300	150	450 x 8€ = <b>3.600€</b>
6	600	600	1.200 x 8€ = <b>9.600€</b>
7	927	830	1.757 x 8€ = <b>14.056€</b>
8	1.376	970	2.346 x 8€ = <b>18.768 €</b>
9	1.649	1.010	2.659 x 8€ = <b>21.272€</b>
10	2.000	2.120	4.120 x 8€ = <b>32.960€</b>
11	3.400	3.400	6.800x 8€ = <b>54.400€</b>
12	6.400	4.800	11.200 x 8€ = <b>89.600€</b>
<b>TOTALA</b>	18.502	15.087	33.589x 8€ = <b>268.712€</b>

Hilabetero edukiko dugun diru sarrera bakarria aurikularrekin irabaziko duguna izango denez, hauek izango dira gure %100 irabaziak.

Aurreikuspen hau egiteko, urtarrietik hasiko ginela suposatu dugu, 12. hilabeteetan gehien salduko dela aurreikusiz, abendua delako, hau da, gabonak direnez eta jadanik urte bat eramango dugunez, jendeak gure produktua ezagutuko duela suposatu dugulako. Hurrengo urteetan negozioak gora egingo duela eta salmenta gehiago egongo direla pentsatzen dugu, irabaziak ere handituz, eta proiektuaren iraupena areagotuz.

Azkenik, kostuen atalean ikusi ditugun kostuen totala eta irabazien totala konparatuz, ondoriozta dezakegu, hasiera batean, AUKA-ren salmentak nahikoak izango direla ditugun gastuak ordaintzeko. Gure irabazi garbiak 100.034,6€ izango dira, hau da, irabaziei kostuak kentzean geratuko zaigun dirua (kostu aldakorrak kontuan edukita).

<b>IRABAZI GARBIAK</b>		
<u>Irabaziak</u> (lehen urtea)	<u>kostuak</u> (finkoak, aldakorrak eta hasierakoak)	<b>TOTALA</b>
268.712€ + 5.000€ =273.712	3.175€ + 73.260€ + 97.242,4€ = 173.677,4€	273.712 - 173.677,4 = <b>100.034,6€</b>